

EUSKARAZ

2019

GAZTE

LITERATUR LEHIAKETA

SARRIAK

IPUINAK

- 1. SARIA:** **Kofradia**
Iñigo Gaiton
 - 2. SARIA:** **Ibai, Itxaso eta olagarroa**
Iñaki Iturain
 - 3. SARIA:** **Eskolako bidea**
Ane Etxabe Usandizaga
- Accesita:** **Jota leiho izkinan eseri zen**
Libe Larrarte
- Accesita:** **Ipuin motza**
Iona Rekarte

OLERKIAK/BERTSOAK

- 1. SARIA:** **Prefosta, lagün!**
Garazi Urretabizkaia
 - 2. SARIA:** **Horiya**
Xabier Sukia
 - 3. SARIA:** **Kofradiari**
Mikel Iruretagoiena
- Accesita:** **Eta bazoaz, tipi-tapa...**
Josu Galdos
- Accesita:** **Maitasuna eta pazientzia**
Rosi Lazkano



ORIZKO UDALA

Euskaraz
bi2-i-bi2.i

KOFRADIA

Iñigo Gaiton

Aitona, zuri

2019ko urriaren 9a, asteazkena. Gaur hasi eta bukatu dituzte Orioko kofradia eraisteko lanak. Gorri koloreko garabia goiz eta arratsalde aritu da dinbi-danba, atzera eta aurrera, 1923. urtean egindako eraikina behera botatzen.

Denon ama

Azken asteetan, haurdunaldi aurreko prestaketa saioak egiten ari gara zortzi bat laguneko taldetxoan anbulatorioan. Gure seme-alaben munduratzea prestatzen ari garen lekutik hogeita hamar metrotara, gure ama eta osaba-izebak jaio ziren eraikina botatzen hasi dira: kofradia. Kontraesana izatera ere iristen ez den ideia horretan pentsatzeak egunaren pertzepzioa aldatu dit; erietzeko leihotik errioa xume begitandu zait, ohi baino apalago, gutxitan atzeman izan diodan indiferentzia puntuarekin.

Goizeko hamar t'erdia aldera, taldeko gainontzeko kideak erditzeari buruzko ariketa batekin despistatu direnean, gelako leihotik burua atara dut langileei buila egiteko: «Aizue! Gelditu lanak!». Haien erreakzioaren zain nengoela, emaginaren ahotsak kolpetik ebaki du nire irudimena.

—Eta zuek, erabaki al duzue alabaren izena? —galdetu digu bikotekideari eta bioi. Ezezkoa erantzutearekin batera, begirada gela barrura ekarri dut bueltan.

Ondorengo minutuetan, erditzeari buruzko esperientziez eta gainean duten amatasunaz aritu dira hizketan taldetxoko lagunak, nahikoa modu bizi eta atseginean. Nik, bitartean, ezin izan dut nire baitatik atara: «Ez al da, ba, errioa oriotar guztion ama?» galderari ertzen bat zorroztu nahian aritu naiz, batera eta bestera, emaginak agurtu gaituen arte.

Tresna zaharrak mundu berrian

Kofradia anbulatorioaren aldetik hasi dira botatzen, Martin Peronaren garajearen pareparetik.

Memoriak kale egiten ez badit, mundu tradizionalarekin lotzen ditudan objektuez beteta izaten zuen lokala Martinek, lehen behintzat: arotz lanetarako tresneria, argazki zaharrak, egurrezko txaluparen bat, eskuz idatzitako partiturak...

Nerabezaroan garaje hartan ikusitako gauzez gogoratzen dihardudan bitartean, garabi gorriak aise jarraitzen du bere lanarekin. Egurrezko habe zaharrek ez dute ia erresistentziarik jartzen kolpeak jasotakoan, errendituta dirudite. Eraikinaren albo batean gelatxoak bereizi daitezke, eta haietako baten barruan, komun zahar bat ikusten da. Zurezko armairu klasikoak ere ageri dira. Etxebizitzetako hormek paper zatiak dituzte zintzilik, altxatuta, garai batean modernoak izango ziren marrazkiekin atonduta. Ekonomia zahar bat ere atzeman daiteke okertutako ate baten atzean, eta ispilu asko; ispiluak paretetan, ispiluak armairuetako ateetan, eta kristal zatiak nonahi.

Kofradiako mundu zaharra ziztu batean puskatzen ari den bitartean, garabiak Peronaren garajeko atea bota eta barruko dena hondakin bihurtzeko tentazioa izan dezakeela okurritu zait; azken finean, zertarako balio dute gizarte modernoan eskuz lan egiteko tresnek, argazki zaharrek, egurrezko txalupak, eskuz idatzitako partiturek...?

Robustiana birramona, komadrona

Robustiana birramona, aitonaren ama, komadrona izan zen. Orioko etxe batetik bestera ibiltzen zen, erditzeetan laguntzen. Duela egun

gutxi eman zidan amak horren berri, alabaren erditzerako gutxi falta dugula-eta gaiaz kontu kontari aritu ginen batean.

Birramona nik urtebete pasatxo nuela hil zen, eta bere besoetan ibili nintzen arren, ez naiz harekin gogoratzen. Oroimenean ondo josita dut, ordea, haren erretratu bat: argazkia urte luzez ikusi nuen osaba Lauriren etxeko apal batean. Fotografia harekin jartzen diot aurpegia birramonari, erretratu hura da nire memoria-rentzat harekiko erreferentzia nagusia. Egurrezko marko txikiaren barruan dotore oroitzen dut emakumea, plano motz-motzean: ile urdindu ederra, begirada umil bezain goxoa, aurpegiara lasaia...

Azken egunotan apropos ekartzen dut gogora birramonaren fotografia, su goxoa da nire arimarentzat. Egun batzuk barru, emaginez gain, ospitalean komadrona bat ere izango dugula pentsatzea gustagarria egiten zait, alabaren erditzea etxekoagoa egiten.

Barometroa

Ume kozkorra nintzela, Kofradiako barometroak inpresio handia eragin zidan ikusi nuen lehen aldian: nola iragarri zezakeen halako aparatu batek hurrengo egunetarako eguraldia? San Nikolasen irudi bat ere bazen justu gainean, baina orduko nire pertzepzioaren arabera, arrantzale zaharrek fede handiagoa zioten gailuari...

Itsasoak laguntzen badigu, asteburu honetan herriko surf txapelketa jokatuko dugu lagunartean. Zorionez, egunsentitik eguerdira arte behintzat, hego haizea izango dugula iragartzen du Windguru webguneak. Aurreikuspen bera egingo al luke barometroak?

Guardia zibilak arkupean

Nire etxekoak 50 eta 60ko urteen artean bizi izan ziren kofradian. Garai hartan, gure amona asko lasaitzen zen eraikinaren arkupean guardia zibil pareja ikusten zuenean. Iruditzen zitzaion eraikinak bazuela halako bakarti edo ilun itxura, eta lotara lasaiago erretiratzen zen espainolez –hegoaldeko doinu– egiten zuten bi gizonak inguruan zirela jakinda.

Izan ere, ilun egoten zen azpi hura, eta

paretako argi apalek ozta-ozta zabaltzen zuten argitasuna hango arraun, txanel, soka, sare eta makila artean. Hormaren kontra San Nikolas eta barometroa babesten zituen kaxa egoten zen, eta harekin bat egiten zuen gardien trikornioen eta kapa handien itzalak. Izebak kontatu didanez, pare-parean izan arte ez ziren ondo ikusten bi gizonak.

Irudiarekin bat egiten zuten itsasoko usainak eta sare oraindik bustienak, kresalak eta gatzak utzitakoak...

Izango zuen, bai, ilun itxura kofradiak, neguko gau beltzenetan.

Usaina aditu

Txikitari aitonaarekin hara hurbiltzen hasi nintzenetik oraintxera arte, Kofradiak eta inguruek usain berdin-berdina izan dute: materia heze eta erdi ustelduen nahasketak sortutako usain sarkorra. Usain betea. Usain lodi-lodia.

Iraganeko pasiera haietako batean aitona lehene aldiz «Aditzen al dek usteldutako arraiaren usaina?» galdera egin zidanean, gizona burutik eginda zegoela pentsatu nuen —bospasei urte izango nituen nik, gehiago ez—. «Usaina aditu? Baina, nola aitona?» Nerabezaroan jada, Zarautzen, institutuko ikaskide batek antzeko erreakzioa izan zuen nirekin: «Nola adituko dek, ba, usaina? Usaindu izango dek!» erantzun zidan, harrituta. Kofradiaren eraiste lanei begira, irribarrea atera dit beste ikaskide batek oriotarro txantxetan bota ohi zigun esaldia gogoratzeak: «Orion, agian, ambulatiorik ere ez duzue izan-go!».

Txikitako oroitzapenak, institutuko lagunak, aditzen diren usainak, aitona eta parean dudan ambulatorioa bueltaka ditut buruan, kofradia pusketaka erortzen ari den bitartean. Garabi gorriaren joan-etorriei begira nagoela, fotogrametan ikusten (eta entzuten) ditut guztiak, niretzat bakarrik proiektatzen ari den pelikula moduko batean.

Segidan, galderak etorri zaizkit burura: kofradia eraisten dutenean, noiz arte adituko ote da inguruan haren usain lodia? Eta hamabost urte barru, oraingo zehaztasun berarekin gogoratuko al dut usain hori, haurtzaroko eta institutuko bizipenen modura?

Arostegineko sirena, Norteko iturriko ura

Eguerdi partea da, hamabi t'erdia oraintxe, eta dagoeneko garabiak koska ederra jan dio kofradiari. Ordu-garai honen bueltan, duela urte batzuk, Arostegineko tailerreko sirena entzungo zen oraintxe nagoen lekutik. Langileak bazkaltzera joateko ordua adierazten zuen soinuak, eta inguru guztian entzuten zen.

Nire baitan Arostegineko sirena hotsa entzutearekin batera, Zakilaneko aldaparen ondoko iturriarekin akordatu naiz, Norteko iturriarekin. Egia esan, ezinezkoa zait sirena hotsaren eta iturriko ur freskoaren arteko lotura zehatza azaltzea, baina, ziurrenik, haurtzaro garaian dute muina bi oroitzapenek. Izan ere, lehen, ume-umetan, aitonarekin askotan joaten nintzen aipatutako iturrira etxerako ur bila. Altzola markako plastikozko botilak poltsan hartu, eta pare bat-edo betetzen genituen. Buelta hori goiz partean edo bazkaldu aurretik egiten genuela uste dut, eta itxura guztien arabera, joan-etorri horietan entzungo nuen tailerreko sirena. Litekeena da.

Poliki-poliki, kofradia atzean laga eta etxerako bidea hartu dut, bazkari legea egiteko. Paretik pasa naizenean, Norteko iturritik tragoa egin dut aspaldiko partez. Ura bizi-bizi joan zait ezta-rrian behera, eta gorputz-arimak freskatu dizkit, Arostegineko sirena berriz entzuteraino. Hotsa nirekin izan dut, etxeko atarira iritsi naizen arte.

Lagunartea egin

«Etorri lasai etxera nahi duzuenean, lagunartea egitera». Patxi Danbolinek tankera horretako esaldi bat esan zidan duela bizpahiru urte, telefonoz elkarrekin hitz egin genuen batean.

Juntatu eta lagunartea egitera. Horretara joaten zen aitona arratsaldero kofradiara, erretiratuta bizi izan zen urteetan. Neguko iparhaize hotzaz eta euriaz babestuta egoten zen hango arkupean Antonio Txokolate lagun minarekin eta beste askorekin, kontu kontari.

Bazkalostean kofradiara itzuli naiz, lanak zertan diren ikustera. Garabi gorriak dinbidanba segitzen du, eta bat-batean, aitonak eta lagunek eserleku modura erabiltzen zituzten egurrezko taula urdinak hondakinen azpian ha-

rrapatuta geratu dira, kolpe sendo baten ostean.

Horrelaxe, dagoen moduan utziko balute, obretako hondakin mendixka hilobi egokia irudituko litzaidake, errio ondo-ondoan, betirako atseden hartuko duten arratsalde goxo eta istorio kresaltsuentzat.

Zazpi bizi-tza

Eraisketa lanen burrundarekin aztoratuta, katu batek salto egin du kristalik gabeko leiho batetik bestera. Noraezean dirudi txuri-beltz koloreko animaliak.

Udako oporrek hiru hilabete —eta zazpi bizi-tza— izaten zituzten garaian, eskolako lagunok Kofradian jostaketan aritzen ginen, katu harra-paketan. Egia esatera, gure ehizarako teknika nahikoa xelebrea izaten zen, eta ez genuen inoiz arrakasta handiegirik izan.

Gutxi gorabehera, hau izan ohi zen gure tranpa: lurrean sardina zahar bat jartzen genuen, eta haren ondo-ondoan, makiltxo batek zutik eusten zion arrantzaleen antxoak-kaxa. Gu kofradiaren hormari pega-pega eginda egoten ginen, eraikinaren eta ambulatioaren arteko landaresian ezkutatuta, animalia azaldu zain. Katua sardina usaintzera hurbiltzen zenean, eskuan izaten genuen sokari tiratzen genion, eta hura makiltxoarekin lotuta egoten zenez, kaxa katuaren gainera erortzen zen. Egia aitortu behar badut, bakarra harrapatu genuen kaxa barruan, eta alde egitea lortu zuen gu hurbiltzerako.

Memoriak kale egiten ez badut, uste dut sekula ez genuela pentsatu ere egin katua harrapatuz gero harekin zer egingo genukeen. Halakoxe ehiztariak ginen gu, udako izerdiak eta lagunaren arteko liskarrak erriora txondo egite hutsarekin garbitzen ziren garaian.

Oraingo begiekin erreparatuz gero, ez zen hain kamutsa jostaketarako gure teknika: katuak harrapatzeko eskasa izan arren, primerakoa zen lagunartea egiteko.

Pixa eginean

Arostegineko tailerraren pareraino joan naiz, eraisketa lanei beste toki batetik begiratzeko. Moila bazterrean, obren bueltan jarrita dagoen burdinazko hesiaren ondo-ondoan, erretiratu batekin egin dut topo. Galtzetako brageta igo

ezinik harrapatu dut, inork ikusi ezin duen izkina batean. Kasu egin eta plaza aldera joan denean, moilako eskaileretan gerriraino jaitsi eta kofradiari begira azken pixa zarrastada egin duela ondorioztatu dut.

Hala izan den edo ez zehazki jakin gabe, gustagarria egin zait txiza zarrastada horren pentsamendua: beti izan dira bereziak azken aldiak.

Aitona eta serenoa

Etxekoek kofradian zuten bizitokiak eraikinaren bi aldetara ematen zuen: seme-alaben logela eta sala zenak moila gainera; handik, leihotik begiratu eta ura oinen azpian ikusten zuten. Sukaldeak, berriz, arranpla aldeko karkarara jotzen zuen.

Gau ilun batean, marruak entzuten hasi ziren moila gaineko balkoi aldean. Laguntza eske ari zen herriko gizon bat, nonbait putzutara erori zela eta, herio batean. Gure aitona ohetik jaiki eta behera jaitsi zen, korrika. Moilatik, eroritakoa bi batelaren artean ikusi zuten, ezin mugitu. Aitona, txaneletik batelera, bateletik anguletarako motorrera gero, haraino bizkor iritsi zen. Berehala, uretan zegoen lagunari lepoko kaparen botoia askatu zion, arnasa hartzea eragozten ziolako, eta handik ateratzen lagundu. Gauetz herria zaintzen ibiltzen zen udaltzaina zen uretara erori eta herio batean ibilitakoa, orduko serenoa.

Gerora, gizon hark bizitza osoan izan zuen oso maitea gure aitona.

Itsasora, aukera berrien bila

Herdoilak jandako balkoia goitik behera erori da, zilipurdika, garabiak erroi aldeko horma bat jo duenean. Aldi berean, hormigoi zatiak moila gainera jausi dira, eta egurrezko taula batek putzutara egin du airean. Ura kolpatzean ez du soinu edo zipriztin handiegirik atera.

Marea hilak izan arren, erresaka pixka bat bada uretan, eta egur zatiak itsasalderako bidea hartu du goxo, ur-azalean. Lehorrean galtzekorik ez denean, etorkizunik ez duten gorputzek uretara —erriora, itsasora— egiten dutela pentsatu dut, egurrezkoak badira ere.

Hutsunea, egonezina

Garabi gorriak arratsaldeko seiak aldera bukatu ditu eraisketa lanak. Hutsune handia laga du tokian, eta espazio berria ireki da parez pare.

Makinaren soinua isildu egin da. Hauts pinportak hegan dabilta airean, ezker-eskubi eta behetik gora, eta kofradiaren arima egurasten ari dela dirudi, hala nola egiten duen gora, zerura edo auskalo nora, etorkizunera biderik ez duenak.

Inpresioa eragiten du zuloak.

Egonezin puntu bat ere bai.

Dena bota, berriro hasteko

Kofradia zortzi bat ordutan bota du behera garabiak.

Balitzko eraikin berria egiteko beharko den denbora tartearekin konparatuta, kontrastea ikaragarria iruditu zait. Ikaratu ere egin naiz; bat-batean, hauskorra bezain arina iruditu zait inguratzen gaituen guztia, objektu txikienetatik hasi eta higiezin handienetaraino.

Momentuan egin ditudan kalkuluen arabera, aurrean dudaren moduko garabi bakarra nahikoa litzateke hilabete pare batean Orio guztia eraisteko. Ondo pentsatuta, ez al da beldurgarria?

Ikaratuta eman ditut segundo batzuk, baina, momentu batean, epeltasuna ere sentitu dut kontzientzian, eta gustagarria ere egin zait irudikatu dudana hondamendia.

Dena bota, berriz eraikitzeko. Azken finean, ez al da ba hori bizitzaren funtsa? Ez al da ba alegiazko zero zatia izaten hasiera oro?

Sokak zartatzeraino

Hondakinek osatzen duten mendixkari begira nagoela, iraganarekin lotzen gaituzten sokak tenkatzen entzun ditut, ia zartatzeraino.

Hasiera da oro

Autopista azpiraino joan naiz bizikleta gainean, Muntotik barrena, minutu batzuk lehenago erriora erori den egur zatia non dabilen ikustera. Bi matxoiren artean pasatzen ikusi dut, xuxen-xuxen, itsaso zabalera bidean.

IBAI, ITXASO ETA OLAGARROA

Iñaki Iturain

Dar-dar batean du gorputza. Itsaslabarraren azpiko gelditasunean, egunsentiko isiltasunean, hortzak elkarren kontra nola jotzen duten entzuten du, kax-kax-kax, itsaso bareak arroken kontra sortzen duen soinu leunaren gainetik. Eguneko lehen eguzki-errainuek argi eta bero pixka bat ekarri dute harkaitzetara. Baina eguna ez da hotza, horregatik onartu dio Itxasori etxetik ilunpetan atera eta Anarriko arrocketara etortzea, artean eguna argitu gabe, hotzik ez delako, eta udazken hasi berri honetan institutuan oraindik hasi gabe dagoelako.

Hemezortzi urteko mutilaren dardara ez da hotzakekarria. Urduritzen hasita, mobilera begiratu eta begiratu ari da. «Honez gero ordu laurdena izango duk, ba, uretan murgildu denetik. Itxaso, Itxaso...», bere ahotsak goiz-albako isiltasun erabatekoa urratu du. «Itxaso, Itxaso...» berriro, ahotsa gehiago altxatuta, eta itsasotik erantzunik ez datorrela jabetuta, erreparorik gabe oihu egin du Ibaik: «Itxaso, Itxaso...». Labarreko harlasta erraldoi batek Ibairen marruari emandako oihartzuna jaso du erantzun bakar.

Berriro begiratu du mobilera: hogeit hamar minutu dira Itxasok uretara salto egin duenetik. Ibairen dardara kezkek eragina da. Itxaso saiatu da laguna konbentzitzen biak elkarrekin sartu zitezten uretan, baina Ibai ez dago ohituta horrelako abenturetan. Itxasok, azkenean, bakarrik ekin dio goizeko murgilaldiari, soinean neoprenozko txaketatxoa eta oinetan aletak jantzita, putzutara salto egin duenean.

Ibai goraxeagoko haitz handi batera igo da, handik begirada urrunxeago iritsiko delakoan, eta behaketa zehatza egin du, arroka-zuloz arroka-zulo, banan-banan begiratzen joan da ea Itxasoren mugimenduren bat sumatzen duen ur aza-

lean. Alferrik, ezta arrastorik ere. Segapotoa berriro sakelatik atera eta: hogeita bost minutu. Telefonoak ere dar-dar egiten dio eskuan. «Hau ez duk parte onekoa, aitari deitu beharko zioat». Zalantzak atzean utzita, kontaktuetan bilatu «aita» eta, goizeko zazpiak izanagatik, deitu egin dio oraindik lo dagoen gizonari, egoera larritzat jota.

Aitak telefonoa hartu artekoa bere bizitzako minuturik luzeena egin zaio. «Aita, Anarri nago, Itxasorekin etorri naiz...». Egoeraren xehetasun garrantzizkoenak azaldu dizkio aitari: Atzo arratsaldean igerian ibili zirela ur azpian Anarri inguruko arrocketan, Itxasok azken orduan olagarro bat ikusi zuela, garro batean arpoi bat sartuta zeukana, hura harrapatzen saiatu zela arpoia kentzeko; baina, ilunduta, ez zuela ezer ikusten eta horregatik etorri direla gaur, goizean goiz, Itxaso lantokian sartu aurretik. «Aita, etorri, etorri agudo, zure txalupan», bukatu du bere azalpena, azken hitzak erdi negarrez atera zaizkiola. Telefono-deiaren beste aldean, aitak ere, artean pijama jantzita eta sustoa barreneraino sartuta, dardara sumatu du eskuetan oheko arropa erantzi eta kalerakoa inprobisatuz jantzen hasi denean.

Bi hitz esan dizkio emazteari, hura lasaitzeko, korrika etxetik atera aurretik. Ziztu bizian etxe ondoan dagoen portura joan, salto batean txaluparatu, motorra berehala arrankatu eta abian jarri du bere indar guztian. Portutik aterata, ontzia itsaso aldera bideratu du, erriogan behera. Zalantza du deia egin edo ez, baina pentsatu du beste erremediorik ez dagoela, eta gainera itsasoko olatuetara iritsi baino lehen egin behar duela. Zarauzko Ertzain etxera deitu du. «Hau eta hau... Anarri inguru horretan behar du, bai. Ni harako bidean naiz».

Telefonia patrikan sartuta, bere buruarekin hizketan segitu du: «Seme inozo hau ere ez zakiat nik noiz espabilatuko den, gizajo hutsa duk, inuzentea, ezetz ez esateagatik kapaz duk katramilarik handienez ere sartzeko, bera baino urtebete gazteagoko lagun bati ere ezin zioz ezer ukatu. Eta bere lagun Itxaso hori ere... a zer aparejua! Eguna argitu ere egin gabe arroketa etorri eta ur-azpian sartu! Burutik pasatzea ere! Ume hauekin ez zagok gauza onik!».

Bitartean, Ibaik arroka gainean segitzen du, Itxaso uretatik noiz agertuko, olagarroarekin edo gabe, baina bizirik. Aitaren deia jaso du, lasaitzeko esanez, Itxaso igerilari ona dela, eta olagarroarekin tematuta entretenitu egingo zela, baina laster aterako dela putzutik, eta bera ere berehala dela Anarrin, eta inola ere ez mugitzeko harkaitzetik.

Aitaren deiak pittin bat lasaituta, mutilaren buruak iraganera egin du. Bere lagunak bataioizena Martin izanda, denek Itxaso zergatik deitzen dioten gogoratu du: Txiki-txikitatik udan gurasoekin hondartzara joaten hasi zenetik olatu artean sartu eta ez zuelako handik sekula atera nahi izaten; bere amak esaten zuen bezala, itsasoarekin bat egiten zuelako. Eta gogoetan segitu du: «Kuadrillako batzuek barre egiten ziotek ezizena neskarena duelako; baina hari ez zaiok inporta, lehen ere ohituta zagok besteen barre eta adar jotzeekin; gainera, Martin baino gehiago gustatzen zaiok Itxaso. Txiki-txikitatik ezagutzen diat eta garbi zeukaat: Itxaso ez duk lehorrekoa, Aquario duk, uretakoa, itsasokoa».

Ibai eta Itxaso eskola berean ibili ziren txikitan. Lagun-minak izaki, batera ibiltzen ziren alde eta aldi guztietan, harik eta Itxasoren aitak lana galdu eta, semearen eskolako gastuari aurre egin ezinda, Itxasok beste eskolan hasi behar izan zuen arte. Orduan hasi ziren bi mutilak pixkana elkarrengandik urruntzen. Ibai herriko futbol taldean jokatzen hasi zenean, Itxaso gonbidatu zuen taldera, baina ez zuen nahi izan; bestelako joerak zituen. Oroitzapenak puntu horretara ailegatuta, amorru pixka bat ere sentitu du lagunarekin: «Berak ere ahalegin pixka bat egitea bazeukak, ba, besteok bezala ibiltzen; gauza denetan desberdina izatea ere! Orain ere zer arraiorengatik pasatu behar dik horrenbeste

denbora putzutik atera gabe?».

Itxasok, gainera, aurten lanean hasi behar izan du: aitak lana lortu du aroztegi batean, eta aita-semeak biak batera hasi dira. Ez eskolan, ez futboleant, seguru asko horregatik ez dira ia ibili elkarrekin azken hilabeteotan.

Ibaik bere hausnarrean segitzen du, «Neure buruari sekula ez zioat barkatuko egin diodana, laguntza behar zuenean, ukatu egin zioat, iskin egin, ezagutu ez banu bezala jokatu». Ibaik gogoan du azken asteotan nola ibili diren kuadrillakoak Itxasoren gainean kristorenak esaten mobilean, Instagramen: «txima-luze, maritxu, sirenatxo, mobilik gabeko atzeratua...» zer ez! «Eta nik ez diat barrenik izan inori aurre egiteko, mutila bakean utzi dezaten esateko ere».

Ibairen aita txalupan dator, ziztu bizian, burrundara osoan. Haren ontziak ez du sekula harrapatu horrelako abiadarik; baina, hala ere, berak nahi baino mantsoago doa, bai baitaki gauzak okertzen direnean itsasoak ez duela barkatzen, oso denbora gutxi behar izaten dela dena galtzeko. Ibaik itsasoarekin bat egiten duen eremuan sartu da, olatuen erritmoan gora eta behera; eta galdera otu zaio, zergatik ote duen seme Ibaik, azkenaldi honetan horrenbesteko joera Itxasorenganako.

Mobila hartu eta Zarauzko Ertzaintzaren telefonora deitu du ostera. «Anarrin daude, bai, eta semearen laguna ez da uretatik ateratzen, denbora asko da murgildu denetik. Joan agudo zuek ere, ez galdu denborarik, ni laster naiz han».

Bitartean, Ibaik bere burua errezatzen harrapatu du eta, asko harritu bada ere, horretan segitu du. «Zarena zarela ere, ez ezazu utzi Itxaso itotzen» egin du erregu, ortzi-mugara begira. Ez daki nori ari zaion, bere baitan pentsatu du itsasoaren handitasun harrigarri horretan izango dela jainkosaren bat. Masailak oinak bezain umel sumatu ditu. Esku batekin malkoak xukatzen ari dela, ikusi du aita bere txalupan hurbiltzen. Bi besoak altxatuta, «aita, aita, hemen, hemen, etorri!».

Aita laster batean da haitzaren parean, txaluparen txopa aldetik aingura bota eta txikota luzatu dio semeari, ontzia arrokarekin hurbiltzeko. Oinak lehorrean jarrita, beso artean estutu du semea. «Ibai, zer gertatu da?». Eta Ibaik hitz

egiten hasteko denborarik izan gabe, erantzuna uretatik etorri da: buru bat ur-azaleratu da. «Itxaso, Itxaso!».

Di-da batean uretako mutila harkaitz erraldoiaren gainean da, aita-emeen aurrean. Hauen aurpegiaren ikara, poza eta harridura, denak batera ageri dira. Itxasok esku artean olagarroa dauka. Garro batean alderik alde sartuta daukan arpoia erakutsi die mutilak. «Baina zuek ez duzue urpeko fusilik ekarri, ezta?» aitak. «Ez, atzotik dauka arpoia sartuta, baten batek botata; horregatik etorri gara, horretara, hori ateratzera» azaldu dio semeak aitari.

Bitartean, Itxasok aletak kendu ditu oinetatik, eta arrokaaren goiko aldean dagoen zulo urez betean murgildu du olagarroa, oraindik arpoia gorputzean duela.

Ibairen aitak izan duen ustekabe ikaragarritik oraindik bere onera etorri gabe, hara non ikusten duen ertzainen itsasontzia abiadura osoan Anarrira hurbiltzen. Ertzain batek, denbora batere galdu gabe, ontzitik harkaitzera jauzi egin du. «Ez al da agertu mutila?». «Bai, bai, oraintxe atera da uretatik, horixe da», saiatu da Ibairen aita ertzaina lasaitzen. Itxaso, haitzaren gaineko putzu-zuloan, olagarroa lasaitu nahian dabil, itsasontziaren motorraren burrundarak aztoratu egin du-eta.

–Zu al zara uretan galduta zegoena?
–ertzainak, Itxasori begira.

–Ni ez nengoen galduta.

Poliziak, Ibairen aitari begira:

–Ondo al dago mutila?

–Bai, ikusten duzu baietz.

–Aizu, mutiko, etorri hona, atestatua egin behar dugu-eta.

Itxasok olagarroari lastan egin eta hura putzu-zuloan utzita, ertzainarengana hurbildu da.

–Ea, mutil, esadazu: Zer izen duzu?

–Itxaso.

Ertzainak harridura-aurpegia sumatu du galdeketa entzuten ari diren aita-emeen aurpegiaren. Orduantxe konturatu da Itxaso bera ere.

–Barkatu, Martin da nire izena.

–Kontxo, kontxo! Esadazu zure aitaren telefonoa.

–Ez dakit.

–Eman, ba, zure amarena.

–Ez dakit.

–Emadazu, ba, zurea.

–Ez daukat mobilik.

–Nola...? Ez daukazula telefonorik! Nola ez daukazula! Zenbat urte dituzu?

–Hamazazpi.

–Hara, mutiko, ez daukazu telefonorik, ez dakizu zein den zure aitarena, ezta zure amarena ere... Zure izena ere ez dakizu... Zuk adarra jo nahi didazu niri. Gainera, ez zara adinez nagusia; beraz, ez daukazu baimenik ur azpian arrantzan ibiltzeko; eta fusil batekin arpoia sartu diozu olagarro bati... Txikito, hau gogoan izan: autoritateari gezurra esatea larria da; ez dut uste isun eder bat ordaindu gabe aterako zarenik honetatik.

Ibaik Itxasori begiratu dio, ea zer erantzungo dion ertzain haserretuari, baina berehala konturatu da bere lagunak buruan daukan gauza bakarra olagarroa dela, hura lehenbailehen eskuetan hartu eta, ahal duen kontu handienarekin, hari minik eman gabe arpoia ateratzea, berriro itsasora bueltatzeko.

Eta bere bizitzan sekula inori aurre egiteko izan ez duen ausardia erakutsiz, barru-barrutik atera zaio Ibairi, ertzainaren aurrez aurre jarrita.

–Hara, Itxaso ez zebilen arrantzan, ez dauka inolako fusilik, ez dio arpoirik inori sartu, alde-rantziz, olagarroari arpoia gorputzetik ateratzeko asmo hutsez etorri gara gaur gu biok arroka; eta itsasoan igeri egiteko ez da behar ez inongo karnetik ez inoren baimenik. Libre da. Eta Itxasok ez dizu gezur bat bakarra ere esan. Utzi bakean!

Aitak harrituta bezain harro begiratu dio semeari, ertzainak atestatuaren karpeta itxi duen bitartean. Orduantxe lortu du Itxasok olagarroari arpoia gorputzetik kentzea. Ibaik bihotzetik arantza bat ateratzen sentitu du, barru-barruan.

Itxasok olagarroa eskuetan hartu eta, maite-maite, zauriaren gainean azken lastana eginda, itsasoan askatu du. Eguzkia mendiaren atzealdetik agertuta, argitasuna nagusitu da itzalaren eremuan. Garbiago ageri dira itsaslabarra eta arroka, baita itsasoko ur-azpikoa ere, gardenago. Ibaik olagarroa ikusi du ur barean igerian, emeki, eta iruditzen zaio keinu egin diola garro batekin, eta hura bezalaxe sentitu da, sendatuta, aspalditxotik barruan zeukan korapiloa askatuta.

ESKOLAKO BIDEA

Ane Etxabe Usandizaga

Astebete baino gehiago pasatu da azkenekoz Mariak Gabriel ikusi zuenetik. Amari behin baino gehiagotan eskatu dio laguntza. Ospitalera joan nahi du, gauza bat dauka esateko. Azaldu dio garrantzitsua dela; amak ez dio sinesten, baina neskatoak sekretu bat dauka.

Mariak egunero egiten du eskolatik etxerako bidea. Gehienetan bere 4 urteko anaiarekin batera egiten du, baina egun hartan, Gabriel azkenekoz ikusi zuenean, anaia ez zen eskolara joan gaixotu egin zelako. Batzuetan bere lehen-gusua ere etortzen da, baina egun hartan ez. Etxerako bidean ez dago gauza askorik, zuhaitz bakan batzuk tarteka-marteka, zabor mendixka batzuk ere badira handik eta hemendik. Oso jende gutxi bizi da Mariaren auzoan, noizean behin autoren bat pasatzen da, hautsa harrotzen du eta Mariak begiak babesten ditu, baina horrez gain, nahiko aspergarria litzateke bidea, geldialdirik ez balitz.

Egunero gelditzen da Maria, ordea: Gabrielen etxetxoaren parera iristean, bisita egiten dio agureari. Mariakentzun zuen behin, zientzialaria izandakoa zela eta gobernuarentzat lan egiten zuela zahartu eta Mariaren auzora etorri zen arte. Baina hori, duela urte asko izango zela pentsatu zuen Mariak, bera jaio aurretik han baitzegoen Gabriel, eta baita Gabrielen tramankuluak ere.

Egunero bezala iritsi zen Maria Gabrielen ondora. Hondartzako aulki horietako batean topatu zuen, egunero bezala. Ondokoa eskaini zion Mariari.

–Bakarrik zatoz gaur? –galdetu zion agureak.

–Bai, anaia gaixo dago –Mariak erantzun.

Errutina markatua dute jada, aspaldi hasi zen eskolatik bueltako errutina. Maria esertzen da hondartzako aulki zahar horietako batean, eta lehen-gusua etortzen bada bera ere bai. Anaiak ez du aulkirik; normalean lurrean esertzen da, txikia delako. Hiruek dakite ezin dutela Gabrielen

etxe ingurua betetzen duten trasteetara gerturatu. Mariaren amak dio agureak zaborra biltzen duela etxean eta txatarraz beteta daukala dena. Mariak, noski, ez dio inoiz amaren iritzia Gabrieli helarazi.

–Nora bidali duzu oraingoan seinalea?

–Hor nonbait dabil –Gabrielek zerura zuzendu zuen eskua, horrek zerbait zehaztuko balu bezala. Bere esku mugimenduak Mariak behar duen informazioa emango balu bezala. Errutinaren parte da hau ere.

Batzuetan, Gabriel umore onean dagoenean, azalpen gehiago ematen ditu. Umore txarrez dagoenean, ez hainbeste.

–Gaur zigortu egin naute –aitortu zion Mariak–. Irakasleak esan du unibertso osoan lurra dela bizitza izan dezakeen planeta bakarra. Horregatik dela denetan interesgarriena.

Gabrielek barre egin zuen.

–Zer erantzun diozu?

–Ez daukala ideiarik, hori inozokeria bat dela. Guk ez jakiteak ez duela esan nahi ez dagoenik ezer. Bilatu egin behar dela, eta horrek ere ez duela ezer esan nahi –irribarre egin zuen Mariak, ama haserretu egingo zen jakiten zuenean irakasleari inozo deitu ziola. Baina Gabriel ez zen haserretuko, harro egongo zen.

–Agian beste norbaitek kontrakoa esango dizu –aitortu zuen agureak–, baina nik uste dut ondo egin duzula –adierazi zion begi keinu batez.

Aparatu errezeptoreri begira jarri ziren biak. Gabriele esaten du etxe atzean daukan radarrak kanpotik honantz datorren uhinik jasotzen badu, argi gorria piztuko dela. Maria ia seguru dago, ordea, Gabriele funtzionatzen ez duen traste bati begira daramala azken hamarkadaren zati handiena.

Ordubetez egon ziren bonbillatxoari begira, adi-adi, piztuko ote zen zain. Mariak baso bat ur edan zuen eta Gabriele pare bat traste konpontzeko ahalegina egin.

Astebete pasatu da, ordea, eta Maria oso

kezkatua dago. Amak azaldu dio anbulantzian eraman zutela agurea ospitalera, eta oso gaixorik omen dago. Mariari, ordea, amak ez dio kasurik egiten. Ez da sekretuak duen garrantziaz ohartzin eta horrek ez dio lorik egiten uzten. Denbora igarotzen ari zaio eta erabaki bat hartu beharra daukala konturatu da.

Eskolan mesede bat eskatu dio lehengusuari. Esan dio hartzeko anaia txikia eta eramateko etxera.

Mariak autobusa hartu du eskola aurreko autobus geltokian. Ospitalera iritsi denean, asko kostatu zaio Gabrielen gela topatzea. Han zegoen erizain bati esan behar izan dio galdu egin dela eta bere aitonaren bila dabilela. Hark lagundu dio.

Beldur pixka bat sentitu du Gabriel ikusi duenean. Ohean etzanda dago, begiak itxita. Makina

bat dauka ondoan, baina ez da etxean dituenak bezalakoa. Mariak ez daki esna dagoen hala lo. Saiatu da bere izena esaten, baina badirudi ez duela entzuten. Mariak ezin du denborarik galdu; azkar iritsi behar du etxera. Hurbildu da Gabrielen belarri handira eta badaezpada ahotsa jaitsi du.

—Gabriel —xuxurlatu du—, Maria naiz. Entzuten didazu? Sekretu bat esan behar dizut; garrantzitsua da.

Gabrielek ez du erantzuten, baina Mariak aurrera egitea erabaki du, sekretuak eztarria erretzen dio. Ingurura begiratu du, inorez dabilela ziurtatzeko, arnasa sakon hartu eta Gabrielen belarrira hurbildu da berriz.

—Gabriel, argi gorria piztu da.

Mariak badaki agureak entzun egin diola, irribarre bat marraztu zaiolako aurpegian.

JOTA LEIHO IZKINAN ESERI ZEN

Libe Larrarte

Jota leiho izkinan eseri zen zigarro bat bilduz eta Bearen kaktusak eta bere logela berria deko-
ratzeko berriki jarri zuen koadroa bota zituen
lurrera, baldar. Mozkortuta zeuden biak. Beak
argia piztu zuen, kalteak hobeto baloratzeko.
Ardi kaka zirudien saguentzako pozoia agerian
gelditu zen gelako txoko guztietan, nabarmen.
Bea esplikazioren bat ematera behartuta sentitu
zen.

«Sagu txiki bat dut gelan» esan zuen. «Bueno,
bat baino gehiago, segur aski».

Jotak ez zuen ezer esan. Beak ez zekien hitzok
altuan esan zituen edo imajinatu egin zuen bere
burua hori esaten. Edonola ere, ez zuen asko
inporta zeren Jotak gorputz erdia leihotik kanpo
zuen orain, zigarro bildu berria erretzen zuen
bitartean. Beak besotik tiratzen zion gela barru-
rantz. Kanpotik ikusita, arriskutsua ematen zuen
—hirugarren pisu bat zen eta dezenteko altura
zegoen—, baina bietako inork ez zirudien bereziki
urduri.

«Ez naiz inoiz inorekin hainbeste fidatu»
esan zion Jotak. Gerritik gora airean zegoen
oraindik.

«Zergatik izorratu behar dute dena hitz egiten
dutenean?» pentsatu zuen Beak, eta oraindik
eusten ari zitzaion besotik gogor tiratuz, gelaren
barrura ekarri zuen Jotaren beste gorputz erdia.

Jotaren agur-festa izan zuten, lana uzten
baitzuen. Beak ordurako galduta zituen Jotarekin
oheratzeko esperantza guztiak. Ez zen gehiegi
prestatu gauerako. Kulero eta sujetadore zaharrak
zituen jantzita.

Berandu iritsi zen geldituta zeuden tabernara,

apropos. Ezagutzen ez zuen jende asko zegoen,
Jotaren lagunak denak. Lehenengo tabernan
denek huskeriez hitz egin zuten zerbeza edateari
utzi gabe, gainditu beharreko derrigorrezko fase
bat bezala. Bigarren tabernan ausartenak dantzan
hasi ziren eta hirugarrenean denak denen lagunik
onenak ziren. Lehenengo tabernan Jota eta Beak
hitz gutxi batzuk eta begirada lotsati batzuk
trukatu zituzten. Hirugarrenerako belarrira mar-
marka ari ziren dantzan, oso gertu.

Beak bere sujetadore eta kuleroetan pentsatu
zuen eta pixka bat penatu zen.

Pare bat ordu beranduago, Jotaren lagun
Martinen etxerako bidean doaz hirurak. Jota
taxitik atera da bidaiaren momentu batean
tabakoa erostera eta Beak leihotik miretsi du
dendara sartzen ari den gorputz luze eta argala.
Barre txikia atera zaio, gustatzen zaizun nor-
baitekin lo egingo duzula dakizunean irteten
dena. Martinek lagunaren absentzia bere eskua
Bearen izterrean pausatzeko aprobe txatu du.
Beak, begirada leihotik apartatu gabe, Martinen
eskua hartu eta belaunean jarri dio berriro.

«Dudarik gabe, Bea, festako neskarik ederrena
zinen gaur» esan du Martinek taxitik jaitsi dire-
nean.

Zerbait esatera doanean, Jotak eskutik hartu
du Bea eta «egia da» esan dio. Eskutik emanda
igo dira Martinen etxera.

Pisu handia eta dotorea da. Piano bat dago
egongelan. Hura jotzen hasi da Martin. Goizeko
seiak dira.

«Jenio bat da pianoan» esan du Jotak. Bea

ez dago bereziki hunkituta.

Pianoa jotzeaz aspertuta, Martinek garestia dirudien whisky botila bat atera du egongelako armairu batetik eta hiru basotan zerbitzatu du. Segidan, barkatzeko esan eta egongelatik atera da, komunera seguruenik. Beak, Mars txokolatina bat aurkitu du mahai gainean, whisky botilaren ondoan, eta plastikoa kentzen hasi zaio. Gose da, aspaldi ez duela ezer jaten. Txokolatina eskuan, Jotarengana hurreratu du bekainak jasota. Honek, Bearen eskutik hortzaka eginez, puska bat hartu du. Elkarri begira daude txokolatea mastekatzten duten bitartean. Mastekatu eta elkarri irribarre egin. Azkenean, Jotak Bearen gainera salto egin eta Mars zaporedun musua eman dio. Martinek, salara bueltatzean, bata bestearen gainean harapatu ditu eta, marmarrean eta muturtuta, sofan lokartu da.

Martinen etxe kanpoan daude berriro Jota eta Bea. Bietako inorkezk dio agurrik esan Martini. Bearen etxera doaz oinez. Dagoeneko argitu du egunak. Auto gutxi batzuk dabilza errepidean, lantokietara bidean batzuk, oraindik erretiratzeko beste batzuk.

Jota beste zigarro bat biltzeko eseri da etxe atarian. Noizean behin, txistua botatzen du errepidera, cowboy bat bezala. Beak, tente bere aurrean, distrahituta begiratzen dio. *Morning Glory*-ren lehen letrak kantatzen hasi da inkontzienteki. Jotak jarraitu egin dio eta biek abestu dute axolagabe, errepidera begira. *Tomorrow doesn't know what it doesn't know too soon...*

Jotak ordu gutxi batzuk ditu lanera joan aurretik. Arropak erantzi, ohean sartu eta txortan egin dute. Jotak lotan hitz egin du eta zurrungak egin ditu. Besarkatuta egin dute lo. Jota uste baino argalago dago arroparik gabe eta bere gorputza hotza da. Mamu bat bezala.

Esnatzerakoan, berriz egiten dute txortan, nahiz eta bietako inork ez zirudien hain gogotsu. Beak bainugelara lagundu du Jota eta dutxa nola erabili esplikatzen dio. Dutxa bakoitza mundu bat da, eta beti dago funtzionatzen ez duen zerbeit edo botoi ezezagunen bat.

«Zer duzu besarkadekin?» galdetu dio Beak Jotari, goizeko hirugarrenetik libratzen den bitartean.

«Besarkatzea gustatzen zait!» kexatu da Jota.

Bakarrik dutxatzen utzi du Jota eta pisua arakatzera abiatu da Bea, ea zein dabilen. Aste jendetsuak dira hauek hirian eta jende ezezagun asko dago pisuan. Alokairua ere bikoiztu egin dio ugazabandreak hilabete honetan. Hirian bizitzen daramatzen urte askotan lehenengo aldia da turista baten antzera ordaindu behar izan duena.

Pisua zerri dago. Sukaldean ez dago inor. Bakoitza bere gelan dagoela dirudi. Egongelatik pasatu da bere logelara bidean.

«O, egun on», agurtu du Beak sofan etzanda dagoen mutil asiarra. Ordenagailu portatila irekita dauka paparraren eta bularraren artean. Txortan entzungo zuela pentsatu du Beak. Pisukide berrietako baten mutil-laguna behar duela izan uste du. Lehengo egunean kalean ikusi zuen pisukidearekin eztabaidan, autobusa hartzera zihoanean. Begira geratu zitzaizen pixka batean, esku hartu edo ez deliberatzen. Oinezko batek ea bikotea ezagutzen zuen galdetu zionean, ezetz erantzun zion Beak. Ez zekien bere izena. Ez zekien pisukideetako inoren izena, egia esateko. Izen frantses konplikatuak ziren. Neska horietako batekin hitz egiten zuen gehien Beak, baina haren izenaz ere ez zegoen ehuneko ehun seguru, eta ezin galdetuko zion bajada. Denbora gehiegi pasa zen.

Jota dutxatik bueltatu da zakila ozta-ozta tapatzen dion toalla batekin. Ez da Beak eman dion toalla. Beste besarkada bat eman dio Jotak. Laugarrena, pentsatu du Beak. Jarraian, bere bakero estuak eta kamiseta beltza jantzi eta lehoaren ertzean eserita, biderako zigarro bat biltzen hasi da. Bea sukaldera atera da eta platano batekin eta aurreko gauean sobratutako pizza zati hotz batzuekin bueltatu da.

«Hau da aurkitu dudana guztia».

Jotak eskaintza errefusatu du.

Bearen udako zerbitzari lan berrian, uso bat –beti bera– ibili ohi zen taberna kanpoan bueltaka. Askotan terrazan etzaten zen, begiak erdi itxita

alde batera eta bestera balantza eginez. Katu baten antzera, hankak bular azpian gordetzen zituen eta burua aurreraka pausatzen zuen, lepotik atera izan balitzaio bezala. Terrazan esertzen ziren bezeroek ardoa eta patata frijituak ematen zizkieten. Beari munduko gauzarik tristenena iruditzen zitzaion.

Jotak eta Beak bosgarren eta azken besarkada bat eman zioten elkarri atarian. Musu bat masailean eman eta «agur eta zorte on» esanez agurtu zuten elkar. «Hau da azkenaldian erdi zoraturata eduki nauen mutila» Beak mentalki erregistratzen du «eta oraintxe bertan, segundo hauetan bertan, badoa betiko eta ez dut inoiz gehiago ikusiko».

Eskaileak jaisten ikusten du Jota. «Hobe dut ondo begiratzen jarraitu, irudi honek betirako atsekabetuko nau» pentsatzen du Beak.

«Zer demontre gertatzen zaio honi?» galdetu zion Beak lankide bati uso mozkorra ikusi zuen lehenengo aldian, zaborrontzien ondoan.

«Hara!» egin zion ihes lankideari, «Honek behar du izan!» eta emozioa ezin ezkutatuta, barraren beste aldean zegoen beste zerbitzari bati gerturatzeko egin zion eskuaz. Orduan biek azaldu zioten Beari ardoarena eta patata frijitutena.

Bea usoaren parean gelditu da, zabor poltsa astun bana esku bakoitzean, usoaren begi logaletuei finko begira. Usoaren bizitza miserablean pentsatzen ari da. Agian, bere bizitza eta beste askorena baino okerragoa ez dela izango okurritzen zaio. Jota dator kio burura. Pentsatzen du goizean azken aldiz txortan ari zirela, nola usoari bezain finko begiratu dion, bere begi berdeei galdetuz bezala «ba al dakizu momentu honen zain egon naizela aspalditik? Eta hemen zaude orain nire gainean eta ez zaitut ezagutzen. Ez dut nire burua ezagutzen. Ez dut logela hau ezagutzen, ez ditut pisukideak ezagutzen, ez nire lan berria, ez nire bizitza. Ezer ez».

Ordura arte bizi izan ez zuen beldur batek harrapatu zuen orduan. Beldurra bere buruaz jabetu zen guztiz. Ezin zuen kontrolatu. Ezkerreko

belarrian tinitusaren txistu desatsegin eta ezagun hori nabaritu zuen. Ez zuen oso ondo ulertzen gertatzen ari zitzaiona. Beste dimentsio batean harrapatuta balego bezala zen, horra nola iritsi zen ez bazekien ere. Bueltatu egin behar zuen nola edo hala, baina betirako egoera horretan geratuko zenaren inpresioa zuen. Ezinezkoa zirudien beldurraz libratzea, behin ezagututa.

Itzultzen hasi zen baina, pixkanaka; hirira, bere pisu berrira, bere logelara, ohera, Jotaren azpira. Mutilaren beso argal eta gihartsuei gogor estutu zien aurrena eta hainbeste gustatzen zitzaizkion tatuajeak laztandu zizkion ondoren. Arnasten hasi zen berriro, bere onera bueltatzen. Eta irribarre egin zion Jotari, bigarren berrespen baten bila bezala. Jotak beste irribarre batekin erantzun zion. Segundo batzuen kontua izan zen, amaitu zen. Salbatua zegoen.

Norbaitek sorbalda ukitu dio. Paula da, bere lankide alemaniarra.

«Ondo zaude?»

«Kaka!» Ez da konturatu negarrez ari dela. Jertsearen besoarekin malkoak lehortu ditu segituan, pixka bat lotsatuta.

«Bea, ondo zaude?» errepikatu du Paulak.

«Bai, barkatu» eta irribarre egin dio, lasaitzeagatik.

«Besarkatzea nahi...?» galdetu dio Paulak aurpegia erdi okertuta bere deserosotasun aleman guztiarekin, Beak ezetz esango dion esperantzan.

«Lasai, ondo nago» eta irribarre egin dio berriz.

Zaborrontzietara martxan jarri dira. Paulak kontainerraren tapa pisutsua esfortzu handiz ireki du eta Beak bi poltsa astunak jaurti ditu indarrez barrura. Paulak tapa itxi du berriz.

«Itxaron, goserik bai?» galdetu dio Paulak patata frijituen furgonetaren ondotik pasa direnean. Erromeroz maneaturako patatekin bueltatu da eta saskitxoa luzatu dio Beari.

«Joder, ze onak dauden patata hauek!» emozionatu da Paula. «Ez al dira inoiz probatu dituzun onenak?» eta burua jiratu du bere lagunaren konplizitatearen bila, baina Bea zaborrontzietara bidean doa bueltan.

«Ikusi al duzu usoa, Paula?» oihu egin dio lagunari urrutitik. Lurrera begira ari da Bea, alde batera eta bestera. «Lehentxeago hemen zegoen...». Ez dago farolarik eta ilun dago. «Ez dut ulertzen...».

Paulak berandu baino lehen bueltatu egin

beharko dutela pentsatzen du.

«Ez dut aurkitzen, Paula!». Gero eta gehiago urruntzen ari da Bea. «Galdu egin dut, Paula!»

«Ze uso? Zertaz ari zara?» xuxurlatu du Paulak, begiak patatetatik altxatu ere egin gabe.

IPUIN MOTZA

Iona Rekarte

Lepoan, buelta guzti-guztian, ebaki fin bat egin eta, ondoren, txapela kendu nion. Gorputz hari irmoki heldu nion eskuekin; hotza, bustia eta gogorra zegoen. Behar bat sentitzen nuen nire barne-barnean eta, hori asetzearren, urduri, burdinazko espirala sartu nion lepotik behera,

barruraino. Horrela, lepoan zuen traba libratzea lortu nuen.

Parrast... parrast, parrast, parrast.

Danga-danga!

Behingoz ase nintzen.

Ederra, txakolina!

PREFOSTA, LAGÜN!

Garazi Urretabizkaia

Doinua: Nafarroatik ardo karraio

1
Askorentzako ezezaguna,
zazpigarren probintzia,
baina Xiberuk bere txikian
ere badu garrantzia.
Hango ardi zintzilen hotsa ta
kantuen alegrantzia...
bertso batzutan kontatuko dut
bertako esperientzia.

2
Udako oporrak zetozela ta,
aukera denak aztertu,
ta bat-batean begi aurrean
barnetegi hau agertu.
Lagunari hala esan nion
«Hau behar diñau ikertu.
Autoa hartu eta goazen
nahiz piperrik ez ulertu».

3
Ailegatu ginen ta jarraian
mutiko bat inguratu:
«Arrastiri hon, ontsa heldu zizte?»
eta lasai zen geratu!
Lagunak tonto aurpegiyakin
neri zidan begiratu,
ezer ulertu ezaren lotsaz
kasi han ginen akatu!

4
Lehen kontatutakoa pasata,
ez ginen ito penetan;
bat-batean jende gehiagoren
hotsa entzun genun bertan.
«Nongoa hiz?» bati galdetu ta
«Usurbilekoa!» bueltan.
Arevaloren txiste batean
sentitu ginen benetan.

5
Pixkanaka batuz joan ginen
autoktonoak, manexak...
ezer ulertu ezinarekin
ia jan gintun estresak!
Komunikatzen hasi nahiean
zintzur bustitzeko presak;
zeinek esan zuen opor hauek
ziruditela errazak?

6
Bigarren egunerako jada
hartu genun dinamika,
goizero bost orduko klasean
ai, zenbat erretolika!
Alokutiboa, toka, noka,
gramatika, fonetika...
Pixkanaka ulertzen goaz ta
biba gü! Aitzina pika!

7
Arrastiritan atelierrak
xiberutarra lantzeko:
sukaldaritza, kantu-tailerra,
gantzügailuak tarteko.
Burdingintza ere ikasi genun,
mailu ta guzti, perfektu;
gero aperitif ta aihai,
berriz indarberritzeko.

8
Ta gauerako bihurtzen ginen
ja(da) nekearen gatibu,
baina hango animazionea
aipatzea merezi du:
bertso-tailerra ta hitzaldiak,
beti kantuak testigu,
ta hortik aurrerako guztiak
guk bakarrik dakizkigu.

9
Xiberun oraindik bizi dira
hemen antzina bezala:
etxeko borta oro zabalik
kanpotarrei diosala.
Lasaitasun hura aztertuta,
onartu behar dut hala:
beldur gabeko gizarte hortan
bat hobeto bizi dala.

10

Etengabe azkartzen ari den
mundu globalizatuan
hizkuntzak lantzeko erramintak
beti ditugu eskuan:
ingeles, frantses edo txinera
ikasi erdi ituan,
ta bitartean euskaldunok hor
elkar ezin ulertuan.

11

Esperientzia zoragarria
esan behar da egia,
txalotzekoa hango euskaldunen
militantzi, ausardia.
Eskuara goxoz bete bihotza
paisai eijerrez begia...
Dagün urtean anima zizte,
züen aidü izanen gira! (bis)

HORIYA

Xabier Sukia

Doinua: Denbora ez da pasatzen

1

Gure Oria ibaiko
soinu bandara ohitzean,
opera bat eguerdian,
sinfonia bat goizean,
aulki mugikorren hotsak
udazken-negu hotzean,
udan kilkerrak bezala
estrapuak iluntzean,
zubiairen gonapetik
ontziak desagertzean,
garaipenak eta penak
herriko plazan lehertzean.
Bi aginte makil daude,
biak erriro ertzean:
makil bat udaletxean,
bestea Arraunetxean.

2

Herria zatitzen duen
erriroaren ziraunak,
igo eta jaitsi dabilen
ziklo zahar betiraunak,
hor gauden espezieak,
familiak eta faunak,
arrantzari emandako
andereak eta jaunak,
saregileen eskutan
jositako amaraunak,
etengabeko uberan
nekatutako belaunak...
kirolak etsaitzen gaitu,
kirolak egiten la(g)unak,
nortasuna ematen digu
euskarak eta arraunak!

3

Moilan eta tabernetan
hamaika arraun doktore:
«trainerua ez zebilek
udaran bezain dotore!
Hankekoak ez din tira
eta ezta tirakore!»
Kalea eta haizea
beti kontrako faktore!
Bertako arraunlariak
zergatik kanpoan lore?
Bihotz horiak zergatik
jantzi gorri, urdin, more...?
Ibai ertzetik begira
hainbeste errejidore,
ehun arraunlari dauzkagu
eta mila entrenadore!

4

Gaur egun arraunlariak
ematen dute ziklistak,
hanketan parentesiak
jarri ezkerro fubolistak...
ze kalte egin dun barritak
eta entsalada mixtak!
non dira txuletak eta
arraultz prejituen txispak?
Non dira arrantzaleak?
Non dira kontrabandistak?
Gaur dira intelektualak
eta batzuk pianistak
Ze kalte ekarri duen
famak eta telebistak!
Buruia altxako balu
amona Maria Frantxiskak!

5

Azken urteotan neskak
dabiltza apar zuritan,
estropadak irabaziz
ia hirutatik bitan.
Garunak birziklitzeko
zerbait ba al dago botikan?
Nola jaio garen gizon
arraunlarien fabrika,
neskak guztion ahotan
dauzkagu esne mamitan,
baina eskema zaharrak
oraindik gure marmitan:
herria animatzeko prest
beti igande eguerditan,
ahaztuta estropada
zela hamaika t'erditan.

6

ETBn ikusten dira
traineruko angeluak,
arraunak eskutan bero
nola sutan pospoluak.
Eserita luze-luze
neska-mutil gazteluak,
ipurdiak ubelduta,
orroak eta uluak,
txarangaren alirona,
arraun zaleen txaluak.
Banderak ondo kostata,
ez dira erregaluak!
Hamalau doaz ontzian,
zakilak eta aluak,
ontzi berean batera
hamalau apostoluak.

7

Aspaldian hasi ziren
arrantzan itsas txoriak,
ofizio hura kirol
bihurtu du historiak.
Beti puntan ibiltzea
ekarri digu zoriak,
galduak ere mordo bat,
denak ez dira gloriak.
Asko dira herri txiki
honetako minoriak,
hitzez deskribaezinak
arraunaren euforiak.
Hitz bakoitzari «h» bat
jarri dio memoriak:
herriari erriok
eta horiari Oriak.

KOFRADIARI

Mikel Iruretagoiena

Doinua: Sorterriko koblak (Mikel Laboa)

1
Moilatik zehar noala,
ohartu naiz berehala,
Arostegiren tailer ondoan
Kofradia falta zala.

2
Arrantzale biltokia,
gure herriko *city*-a,
hautsak harrotuz desagertu da
historiaren zatia.

3
Kultura baten ondare,
bota dute hala ere,
bertako xagu eta katuak
aterperik gabe daude.

4
Katuak korri kanpora,
lo zegoena zulora,
etxea bera hilik zegoen
duela hainbat denbora.

5
Orio eta arrantza,
haserretu dira, antza,
konfort aldean pausatu zaigu
izate baten balantza.

6
Izan ginen arrantzale,
zertan egin dugu kale,
orain umeak egin zaizkigu
moila zaharraren jabe.

7
Agortuta eredua,
uda ostean negua,
hemen ez eta orain jan behar
Tarifako bixigua.

8
Pozik bixigu-jatera,
plazan elkartuko gera,
andaluz batek jarri ezker
beita eta kainabera.

9
Turistaz beterik plaza,
parranda eta jolasa,
baina antxota joan behar bada
borondatea eskasa.

10
Lana da nonbait astuna,
iluna etorkizuna,
senegaldarrek egiten dute
euskaldunak nahi ez duna.

11
Orduko agur tristeak,
sare-josten emazteak,
ipuinetatik jakingo ditu
gaur eguneko gazteak.

12
Moila aurrean geldirik
ez kofradi, ez barkurik,
izan ginenaz ez da geratzen
oroitzapena besterik.

ETA BAZOAZ, TIPI-TAPA...

Josu Galdos

Eta bazoaz, tipi-tapa,
tipi-tapa zoazenik ikusi gabe.
Eta ez;
ez duzu zure aurretik pasa den
mutikoaren irribarre lotsagabea ikusi,
ez dituzu ileak orraztu dizkizuten
hosto zabal idorrek sentitu,
ez duzu zapaldu berri duzun
lore ximelduaren indarra nabaritu,
ez duzu bide-bazterrean zegoen
hildako txoriaren odol gorri-gorria ikusi,
nahiz eta nazka aurpegia jarri duzun,
nahiz eta begiratu duzun,
ez duzu ikusi, ez...

Eta ez;
ez duzu zu agurtzera gelditu den
amonaren begirada tristea ikusi,
nahiz eta zuk ere agurtu duzun,
nahiz eta irribarre eder bat eskaini diozun...

Eta bazoaz, tipi-tapa...
tipi-tapa zoazenik ikusi gabe.
Deus ikusi gabe, zu
biharko edertasun irudikatuaren
esne zaharra edaten ari zara etengabe;
ezpainak ukitzean gozoa dirudien esnea,
irentsi orduko garrazten zaizun esnea,
orain eta hemen
tipi-tapa zoazen heinean
zugandik sortzen ari den esne beti berri eta gozoa
edan gabe, usaindu ere egin gabe.

MAITASUNA ETA PAZIENTZIA

Rosi Lazkano

Doinua: Se me olvidó otra vez.

1
Izaten zen hilean behin
edota hilean bitan,
aita etortzen zenean
Ordiziko feritikan,
danok beregana joan
eta hantxe zintzilikan,
txaketa panazko beltzak
zer ote zeukan patrikan.
Goxoki txikitxo batzuk
noiz irentsiko irrikan,
maitasun-istorioa
ezin esan ez zenikan, (bis)
nahiz pazientzia galdu
paxientxiagatikan.

2
Amarena bestela zen,
ez zen joaten ferira,
zortzi seme-alabekin
festak egunero dira:
panderoari eragin,
irrintzia, kalejira,
zapi zuria dantzatu
patriketatik mukira;
baina bere magalean
denok bagendun kabida,
nahiz eta alde dagon
goxokitik goxokira, (bis)
amaren muxuak ere
goxoak izaten dira.

3
Maitasun-kontu gehiago
aurten badut gozatua:
aupa, senide postizo,
koinata ta koinatua.
Ezteia zilarrez, urrez,
diamantez babestua,
hirurogei urte biok
elkarri hartuz eskua.
Harribitxiena degu
zuen harreman estua,
pazientzia ote da
ai, sekretu ezkutua; (bis)
betirako izateko
badu honek arriskua.

4
Ipurdietan kailuak,
esku batean arrauna,
bestea agurtutzeko,
ama, ahizpa ta laguna.
Pazientzia brutala,
kolorean maitasuna,
eta obarioetan
zeranan harrotasuna.
Gaur irripartxo xaloe,
lehen begirada lizuna,
Liga handia herrira
eta hari Kontxa suma. (bis)
Hala ere, handiagoea
bidean egin dezuna.

5
Nahiz eta azalpenentzat
bilerak jarri propio,
nahiz zaharberritzeakin
onura den ondorio,
lurra mugitzen hasi da,
pazientiak adio,
pausoa aldatu behar,
aber zer erremedio!
Ze adibide, ze falta,
ze kulpaa, ze murmurio!
Baina zurekin haserre
ezin naiz egon, Orio! (bis)
Gainera, alper-jardunak
askorik ez du balio.

6
Mirotza udaran hegan,
zapelaitz beltza urrian,
itzal ederra eginez
zapitxo hori-gorrian.
Maitasuna etxekoen
besoetan, eztarrian,
momia harek aurretik
pilotuaren neurrian.
Nahiz demokrazia jarri
pantailan edo orrian,
grazi askorik ez zegoen
kapelaiuan etorrian; (bis)
bakea guretzat behintzat
ez zen azken agurrian.